

Tartuforen itzulpenaz gogoetan*

JUAN MARTIN ELEXPURU

Tartuforen itzulpenaz zerbait idazteko eskatu didate. Lau urte baino gehiago dira amaitu nuela. Itzultzailearen burua irakiten egoten da lanean murgilduta dagoenean; berba eta esaldi bakoitzari soluzio azkarra eman beharrean da, eta tarteka zenbait ideia teoriko eta praktikoko ustez txundigarri datozkio burura, hurrengo esaldiari ekin orduko garunetako linboan galtzen direnak. Linboko atea zabaldu eta ea zerbait aurkitzen dugun ilunpean. Arkeologoez egin ohi dutena egin beharko genuke itzultzaileok: zerbait garrantzizkoa aurkitu uste denean, gelditu eta apunteak eta argazkiak hartu. Baina iruditzen zait gehienok ez dugula horrelakorik egiten.

Zergatik itzuli nuen bertsoan eta ez prosan, galdera horri erantzuten saiatuko naiz batik bat hurrengo lerroetan, eta bide batez bertsoan itzultzearen saminak eta atseginak azaltzen ere bai.

Gauza nabaria da edertasunak erakartzen gaituela, berezkoak zein berariaz landutakoak, “arteak”, alegia. Ahozko literatura izan da berba lehengai duen artea idazkera sortu aurretik, eta gero ere bai neurri batean. Ipuin eta elezaharrekin batera, aho-korapiloak, esaerak, eta batez ere bertso eta kantak dira literatura zaharrenaren adierazpide nagusiak, eta jakina da azken hauetan errimak eta neurriak duten berebiziko garrantzia.

Lehen literatura idatzia ere, ahozkoaren jarraipena izaki, errimatua eta neurtua izan zen gehienbat. Eta ez poesia bakarrik, Greziako eta Erromako antzerki klasiko ia guztia hala dator, eta baita Erdi Aroko eta Modernoko gehientsua ere. Garbi dago errimak eta neurriak atsegin estetikoak aktibatzen dutela, tekla garrantzitsuren bat jotzen dutela gure burmuineko bazter ezkuturen batean.

* “Langintza Xeheki” artikulua sailean argitaratu zen lehenengoz, 2012an (<http://www.eizie.org/Argitalpenak/Langintzaxeheki>).

1980 inguruan hasi ginen Bergarako UNEDen Itzulpena ematen Sakontze Maila prehistoriko haren ikasgaien barruan. Artean teoria lan gutxi zegoen euskarazko itzulpengintzaz, ia batere ez hasieran, eta geroxeago sortuko zen *Senez*-en ia amatzat jo ditzakegun *Cuadernos de Traducción e Interpretación* delakoetara jotzen genuen gure jakinduria urria elikatzeke. Honetaz gain, Valentín García Yebraren *En torno a la traducción* (Gredos 1980) liburua ere oso estimatua genuen. *Tartufo* itzultzeko ardura hartu nuenean, han irakurritako pasarte bat etorri zitzaidan burura, urtero banatzen genituen apunteetan hutsik gabe sartu ohi genuena. Poesia prosan ala bertsoan itzuli, hona hemen zalantza:

“Pero acaso la solución más sensata de este problema consista en no darle ninguna solución abstracta universal, que pretenda ser valedera para todas las obras poéticas. Lo mejor que puede hacer el traductor es estudiar las posibilidades de cada caso. Dependerán estas del carácter y estructura de la obra considerada, de la proximidad o alejamiento de las dos lenguas, del propósito de la traducción, de sus destinatarios. La elección es complicada y comprometida. Como norma general yo solo me atrevería a dar ésta que he expuesto ya en otras ocasiones: *Vale más una buena traducción en prosa que una mala traducción en verso; pero una buena traducción en verso vale más que una buena traducción en prosa.*” (139. or.)

Tartufoi nola heldu

Zalantza gutxi izan nuen erabakitzeko orduan. Batetik, UNEDeko itzulpen klaseetan sari samar erabiltzen genituen testu errimadunak, poemak, gehienbat, eta horri esker banuen praktika apur bat jardun horretan. Bestetik, ba ote euskara baino hizkuntza aproposagorik bertsoan itzultzeko? Ezin jakin euskarak errimarako erraztasun handiak ematen dituelako dagoen gurean hainbeste bertsolari, ala alderantziz den, bertsozale eta bertsolari asko egoteak ekarri duen errimarako erraztasuna. Berdin dio. Kontua da balantza errimaren aldera makurtzen zela nabarmen.

Neurri kontuak

Tartufo binan-binan errimatzen duten dodekasilabotan idatzita dago (hamabi silabako bertsoak edo alejandrino frantsesak). Baina frantsesezko eta euskarazko berben eta sintagmen luzerak ez dira berdinak. Frantsesez letra asko ez dira ahoskatzen, poesian eta kantuetan salbuespentxoak egiten badira ere. Euskaraz, berriz, idazten den guztia irakurtzen da, ez da ezer jaten. Lehen begiratuan ikusten da ezin direla frantsesezko hamabi silabakoak neurri berbera erabiliz behar bezala itzuli.

Hamabostekoa aukeratu nuen, probarako zenbait ariketa eta gutxi gorabeherako kalkulua egin eta gero.

Ikus dezagun zer itxura hartzen duten liburu hasierako bertso hauen originalak eta itzulpenak:

MADAME PERNELLE

*C'est que je ne puis voir tout ce ménage-ci,
Et que de me complaire on ne prend nul souci.
Oui, je sors de chez vous fort mal édifiée :
Dans toutes mes leçons j'y suis contrariée*

PERNELLE ANDEREA

*Etxe honetako ganora ez dut agoantatzen,
Nire gustua egiten inor ez da arduratzen;
Bai, neure onetik irtenda noa zuen etxetik,
Nire esanak hemen ez du balio piper-hautsik;*

Lehen begiratuan nabari da originalak eta itzulpenak bolumen berdintsua dutela. Le-trak banan-banan kontatzen baditugu, berriz, 33/31/33/35 zenbatzen ditugu originalean eta 33/33/34/34 itzulpenean. Lau bertsoak batuta, 134 letra originalean eta beste 134 itzulpenean. Bingo! Txiripa hutsa agian, baina... Aukera ona egin nuelakoan nago.

Jatorrizkoan bertso guzti-guztiak ez dira hamabi silabakoak. Pertsonaiak esaldi bakarra esaten duenean laburragoak dira sarri eta ez dute silaba kopuru finkorik izaten.

MARIANE

Je crois...

MADAME PERNELLE

*Mon Dieu ! sa sœur, vous faites la discrète,
Et vous n'y touchez pas, tant vous semblez douce;*

MARIANA

Nire uste apalean...

PERNELLE ANDEREA

*Jainkoa lagun, hain esaneko eta apala zu,
Euli bat inoiz garbitu gabea dirudizu,*

Inoiz, ahapaldi luzeagoen hasierako bertsoa ere laburragoa da jatorrizkoan; egileak nahiera-ra hartzen du lizentzia hori. Itzultzerakoan ere nire komenentzien arabera jokatu dut, batzuetan originaleko neurrietan sartuz, beste batzuetan hamabosteko estandarrera itzuliz. Honako honetan, esaterako, luzea hautatu dut:

ORGON

Et Tartuffe ?

DORINE

***Tartuffe ! Il se porte à merveille,
Gros et gras, le teint frais, et la bouche vermeille.***

ORGON

Eta Tartufo?

DORINA

***Tartufo? Ondo baino hobeto, zoragarri,
Gizen-gizen, distiratsu eta ezpainak gorri.***

Tranpatxoak ere sarri egin behar izaten dira neurrian sartzeko, araua hausten ez dutenak gehienak: diptongoak hiato bihurtu, hiatoak diptongo, edo sinalefak egin, hau da, bokalez amaitzen den hitz amaierako silabarekin eta bokalez hasten den hurrengoarekin silaba bakarra egin. Baina gertatzen da inoiz eginahalak eginda ere ezin izaten dela neurrian sartu. Errima, zentzua, estetika..., dena egoki, baina silabaren bat sobra edo falta. Zer egin horrelakoetan? Zer sakrifikatu? Errima? Zentzua? Estetika? Ala, etsi-etsian, neurria? Hau ezin da esan, baina silaba bat gora edo behera inor ez da konturatuko.

Errima kontuak

Neurrian sartzek dakartzan arazoak gutxietsi gabe, errimak ematen dizkio buruko min handienak itzultzaileari. Gazteleraz errima “kontsonantea” eta “asonantea” bereizten dira. Eus-

karaz eta frantsesez “aberatsa” eta “pobrea” (“riche” - “pauvre”) erabili ohi da, subjektibotasu-nari leku gehiago eginez, ez baita lan erraza kalitate-mugak ezartzea. Dena dela, nahiko erraz bereizten dira, hurrengo hauei begiratzea aski:

ELMIRE, à Cléante

Vous êtes bien heureux de n'être point venu

Au discours qu'à la porte elle nous a tenu.

Mais j'ai vu mon mari ; comme il ne m'a point vue,

Je veux aller là-haut attendre sa venue.

ELMIRA, Kleantori

*Zorionekoa zu, etorri zarelako **berandu***

*Ez duzu horren sermoia entzun beharrik **izandu,***

*Baina hor dator senarra, eta ez nauenez **ikusi***

*Gora joango naiz eta han itxoingo diot **lasai.***

Ahalik eta errima aberatsenak bilatu nahi izaten ditugu, baina askotan pobreekin edo oso pobreekin konformatu behar, errimaren mesedetan originaleko edukiak gehiegi bortxatu nahi ez badira behintzat. Inspirazio kontua ere izaten da, eta urrerik aurkitzen ez denean zilarrarekin edo brontzearekin konformatu behar.

Bestalde, binan-binan errimatuz edukiak pare-parean eramatea ezinezkoa izaten da zenbaitetan. Horrelakoetan, ahapaldiari begiratu beharko zaio, eduki unitateari. Bi, lau edo sei lerrotan datorren mezua jaso, buruan berriz egosi, eta modu librean eman, lerroz lerrokoari jaramonik egin gabe.

ORGON

*Je vois qu'il reprend tout, et qu'à ma **femme** même*

Il prend, pour mon honneur, un intérêt extrême;

ORGON

Guzti-guztiaren ardura hartzen du gogotik,

***Emazteaz** batik bat, nire ohorea zaintzeagatik,*

Itzultzailearen beste baliabide bat zamalkadura da, hau da, errimatzen duen hitza esaldiko azkena ez izatea. Gurdia lokatza artetik ateratzeko balio izaten du inoiz, eta emaitza ez da beti itsusia izaten.

MONSIEUR LOYAL, à Orgon

Salut, monsieur. Le ciel perde qui vous veut nuire,

Et vous soit favorable autant que je désire

LEGEZKO JAUNA, Orgoni

*Egunon, Jauna. Zeruak dezala zure **etsaia***

***Zigor,** eta nik desio hainbat bete zure nahia!*

Hiztegi errimatua, itzultzaileak horrelakoetan gustura hartuko lukeen tresna. Xabier Amurizak bertsolaritzarako atera zuen 1981ean, titulu horrexekin: *Hiztegi errimatua*. Interneten ere aurki daiteke zenbait hobekuntzarekin. Tamalez ez nuen erabili, ez bainintzen gogoratu ere egin. Dena dela, pentsatzen dut bertsoan itzuli nahi duen itzultzaileak hiztegi errimatu on baten beharra duela. Ea norbait animatzen den literatura itzulpena zuzendutako hiztegi bat egiten edo bertsolaritzan erabiltzen den bat egokitzen.

Trataerak: zuka, hika, berorika

Antzerkia itzultzean, beste hainbat hautu ere egin behar izaten da hasieratik. Trataerak: zuka, hika, berorika... , nola berba eragin pertsonaiei? Zentzunak diosku hikaren aldeko hautua egin behar dela, ezin dela horrelako baliabide bat alferrik galdu. Baina nork norekin? Badi-ra erabilera tradizionala zein den erakusten duten hitanoari buruzko azterketak. Anai-arreba, lehengusu-lehengusina, koinatu-koinata edo lagununen artean, edota gurasoek seme-alabei: hika; senar-emazteen artean, gazteek zaharrei: zuka; eta abar. Gero errealitatea da gurasoek, batez ere amek, nekez egiten dietela hika alabei. Berorika ere hor geneukan apaizei eta errespetu handia zitzaienei egiteko.

Itzulpena berrikusten dudalarik, jabetzen naiz senez-edo jokatu nuela eta ez arauz. Amona Madame Pernellek hika egiten dio Kleanto ilobari; iloba Marianari, ostera, zuka. Orgon aitak ere gauza bera egiten du seme-alabekin... Ez zen erabaki zuzena izan, aitortzen dut. Joera berri samarra dirudi emakumeei zuka eta gizonezkoei hika egite hori. Pare bat edo hiru bat belau-naldi atzera joz gero, ez da halakorik sumatzen. Eta diskriminazio kutsua ere badu gaur egungo joera honek.

Berorika, berriz, ugazaba Orgoni eta honen emazte Elmirari egiten die Tartufo zuri lausengariak. Baina esaldi laburretan bakarrik, ez diskurtso luzeetan.

TARTUFO, Elmirari

*Zeruak **dagiola bere** ontasun azkengabea*

Gorputzeko eta arimako osasuna eman,

*Eta bedeinka **ditzala berorren** egunak,*

*Opa **dio** anderearen zerbitzari apalenak.*

...

*Nola **dago berori?** Pasatu omen **du** gau txarra.*

Baina hortik aurrerako gehiena zuka dago:

***Zure** osasunak merezi du hori eta gehiago,*

Eta harengatik nahi nuke nirea ematea.

Ez dakit zuzen ala oker jokatu nuen, eta ez naiz oroitzen erabakia berariaz hartutakoa de-netz. Kontua da oso zaila dela luzaroan berorika jardutea. Izan ere, nahasgarria bihur daiteke: *Berorren osasunak merezi du hori eta gehiago...* Noren osasunak? Galde dezake berorikara ohitu gabeak. Gainera, batean berorika eta bestean zuka aritzea izan liteke baliabide komiko bat, obrari eta Tartufo bezalako pertsonaia groteskoari ondo datorkiona. Ez dakit. Eztabaidagarria da. Bestalde, obraren bigarren partean, Tartuforen eta bere ugazaben arteko harremana guztiz bihurritzen denean, ez luke inolako zentzurik berorika aritzeak.

Beste kontu bat aipatzearen, obrako pertsonaiarik sinpatikoena Dorina da, neskamea. Jatorri apalekoa izaki, behin eta berriz dihardu handikeriaz eta fantasiar beteriko jauntxo familia lainoetatik jaisten. Jatorrizkoan, agi denez, herri-hizkera nabarmenean mintzatzen da Dorina,

Pariseko dotoreziatik oso urrun. Nola adierazi hori euskaraz? Euskalkian edo azpieuskalkian mintzaraziz, agian? Bergarako baserritarrak bezala egin zezakeen, adibidez. Itzultzailea sarri aurkitzen da zer egin jakin gabe pertsonaia hizketa ez estandarrean mintzatzen denean. Horrelakoetan hizkuntza estandarrean itzultzea ez dirudi irtenbide zuzena. Euskalkiak edo herri-hizkerak dira irtenbidea? Nik uste baietz kasu batzuetan. Dena dela, ez nintzen ausartu, eta ez dakit oso ondo zergatik. Ohitura falta? Beldur eszenikoa?

Ulermen arazoak

Nire denboran frantsesez dezente entzun eta irakurri dudan arren, nire frantses maila ez da oso ona. Eskerrak badudan aldamenean askoz ere hobeto dakien norbait. Itzultzaileak beti ditu arazoak hizkuntza arrotzean dagoena ulertzeko. Eta obra hori duela hiru edo lau mendekoa bada, gehiago. Hango erreferentzia historiko eta kulturalak, zentzu bikoitzeko esaldiak, ironiak, eufemismoak eta beste gauza asko zail egingo zaizkio harrapatzen. Hiztegi onak beharrezko izango ditu, jakina, eta horrelakoetan baita hiztegi historikoak ere¹, duela bi edo hiru mendekoak. Eta beste hizkuntza batzuetako itzulpenak² ere bai, jakina. Horrekin guztiarekin eta jardunak ematen duen senarekin konpondu beharko du testua ahalik ondoen ulertzeko, jakinda, betiere, zenbait gauzak ihes egingo diola eta beste hainbat hola-hala ulertuko duela.

Azken gogoetak

García Yebraren beste aipu bat amaitzen joateko:

“Qué duda cabe de que también el traductor de textos literarios profanos está obligado a conservar, en lo posible, la propiedad, la gracia, la fuerza, el sabor y la eufonía del original, e incluso las peculiaridades de su estilo; a no decir por rodeo lo que el original expresa directamente, ni por atajo lo que el original dice por rodeo; a conservar, en fin, la plurisignificación del lenguaje literario, que, como hemos visto, es la característica fundamental de la función poética. Todo ello puede resumirse en esta fórmula que he repetido muchas veces, incluso por escrito: el traductor debe aspirar a *decir todo lo que el autor original ha dicho, y a decirlo del mejor modo posible*. El arquero que apunta a un blanco distante debe tirar por alto, pues la flecha se abaja, pierde altura, por su propio peso.” (135. or.)

Aholkuari jarraitzen saiatu arren, auskalo non jo duen nik jaurtitako geziak. Bestalde, ez da aztia izan behar bertsoan itzultzeak askoz ere denbora gehiago hartzen duela jakiteko; prosan baino hiru edo lau aldiz gehiago bai, *Tartufo* eta *Zekena* hurrenez hurren itzultzean jabetu nintzenez. Eta bertso bakoitza erronka bihurtzen da, gurdia sarri geratzen da lokatzatan ez aurrera

1. Vicente Salvá. *Nuevo diccionario Francés-Español y Español Francés*. París 1856. Lagungarria hitz zaharkituak ulertzeko.

2. Interneten aurki daitekeen 1832an prosan argitaratutako itzulpenak asko lagundu zidan. *El Tartufo. Comedia en cinco actos compuesta en francés*. Imprenta de Valentín Espinal. Caracas 1832. Ez da itzultzailearen izena agertzen.

eta ez atzera. Baina gozatu ere gehiago egiten da, bai lanean dihardugunean eta baita lana ustez onik burutzen denean. *Tartuforekin* bateratsu itzuli nituen *Zekena* eta *Printzea*, eta niretzat *Tartufok* jarraitzen du umerik kutunena izaten.

Jatorrizko edukiekin askoz ere fidelago izan daiteke prosan, errimaren eta neurriaren morrontzarik gabe. Hor ez dago zalantzarik. Baina fidela, txepela eta motela, ederki errimatzen duten hiru berba izan daitezke. Dena dela, bertsoan itzultzeak baditu bere morrontzak, sarritan jatorrizkoaren zenbait eduki tintontzian uztera eta norberaren uztakoak sartzera eramaten baikaitu erremediorik gabe. Oreka ondo samar zaindu ezean, amildegitik behera eror gaitzke.

Bizitzako beste arlo askotan bezala, fideltasunaren eta askatasunaren arteko borroka etengabea aurkitzen da itzultzailea, eta bertsoan itzultzerakoan are gehiago.

Reflexiones en torno a la traducción de *Tartufo*

¿Traducir en prosa o en verso?: esa fue la primera decisión que tuve que tomar al enfrentarme a la traducción de *Tartufo*. Creo que cuando se mantiene el verso, el resultado suele ser mejor —siempre que se haga mínimamente bien—, así que, aun consciente de los riesgos, me atreví a intentarlo. La mayoría del teatro clásico está escrito en verso, por lo que merece la pena transmitir a los lectores y actores el placer estético producido por las rimas y la métrica. Y esa fue, justamente, la segunda gran decisión: ¿a qué métrica ceñirme? Opté por usar en euskera versos de quince sílabas en lugar de las doce del original, dado que el francés es una lengua más “corta” que el euskera. En las rimas busqué que fueran lo más ricas posible, aunque en ocasiones hube de conformarme con las pobres. Y para mantener la armonía entre métrica, rima y contenido, me serví de los encabalgamientos, cambié de lugar algunas informaciones, etc. He constatado, así mismo, la necesidad de un diccionario vasco rimado, adaptado a las necesidades de la traducción. También se me plantearon dudas respecto al tratamiento que debían utilizar los personajes entre ellos. Y podría seguir, pues hay más dudas que soluciones. Mis soluciones están en el texto traducido; ahora es el turno del lector, que es quien decidirá en qué medida erré o acerté.

Réflexions autour de la traduction du *Tartuffe* de Molière

Traduire en prose ou en vers, tel fut le premier dilemme auquel je fus confronté au moment où je pris la décision de traduire le « Tartuffe » de Molière en langue basque. Bien que conscient de la difficulté et du risque que cela supposait, je me résolus à le faire en vers, car le résultat est toujours meilleur, si du moins on réussit à le faire convenablement. Le théâtre classique est pour la plupart écrit en vers, et il est intéressant d'essayer de transmettre au lecteur ou à l'acteur le plaisir esthétique que procurent le vers et la rime. La deuxième décision à prendre concernait la mesure du vers, et j'optai pour allonger l'alexandrin français à quinze syllabes, le français étant une langue plus « condensée ». Quant à la rime, je voulais qu'elle fût la plus riche possible, quand bien même je dus me contenter souvent d'une plus pauvre. L'enjambement, le déplacement de l'information et des procédés de ce genre sont communément utilisés pour agencer harmonieusement la rime, la métrique et le sens. Je me rendis compte également de l'utilité d'un dictionnaire des rimes adapté aux traducteurs en langue basque, ouvrage qui nous fait encore défaut. Je dois aussi signaler les hésitations que j'eus au moment de choisir entre le vouvoiement, le tutoiement et la troisième personne, comment faire parler les personnages ? Bien plus de questions que des solutions. En fait, les solutions se trouvent dans la traduction et il revient au lecteur averti de juger de leur pertinence.

Reflections on the Translation of *Tartuffe*

To translate as prose or verse: that was the first decision to be made when I set about translating *Tartuffe*. Even though I knew the risks, I accepted the challenge of verse, since if I succeeded in doing a reasonably nice job, the result would be quite a bit better. Most classical theater is written in verse, and it is worth the effort to try to transmit to the reader or actor the aesthetic delight of the measures and rhymes. The measure was the second decision. I extended the twelve syllables of the original French to fifteen in the Basque translation, since French is a “shorter” language than Basque. The rhymes, on the other hand, had to be as rich as possible, even though I often had to settle for a poor one. Enjambment, moving information from one place to another, and other such tools and tricks are often used to coax rhyme, measure and content into harmony with one another. I needed a rhyming dictionary for translators. There was also the issue of form of address. How to translate speech into Basque: using the familiar “hi” for “you,” or the more formal “zu,” or the very formal “Berori”? More questions than answers. My answers are in the translation. Only the reader will be able to say if they are correct.